

Elur - melur!



Abendua da. Euskal Telebistan teleberria prestatzen ari dira. Orain eguraldiaren gizonaren txanda da. Gontzalen aita etxean dago eta telebista ikusten ari da. Eguraldia ikusi nahi du eta erne-erne dago.

- Eta orain eguraldiaren berri. Aurrera, Andoni -esaten du lokutoreak.

- Eskerrik asko, Aitor. Gabon ikus-entzule guztioi! Gaur Euskal Herrian eguraldi txarra dugu.

Gontzalen aita harrিতuta dago. Telebista barruan euria ari du eta eguraldiaren gizonak gabardina eta euritakoa ditu.

- O! Zein ondo, etxe barruan - esaten du aitak.

Telebistan bertan elurra ari du eta Gontzalen aitak ez du ezer ulertzen.

Halako batean, Gontzal dator eta galdetzen dio:

- Zer ikusten ari zara?

Gero, Gontzalen arreba heldu da eta esaten du:

- Eguraldia... Bai aspergarria!

Orduan, aitak esaten die:

- Ixilik egon! Edo telebistakoak zoratuta daude edo ni ez nago ondo. Uff!
Banoa!

Orduan, Gontzalek galdetzen dio:

- Nora zoaz aita?

Zer gertatzen da? Ez dakizue? Bada, gaur abenduaren 28a da.
Inuxenteen Eguna. Gontzalen aitak ez daki eta telefonoz deitzen du:

- Zer gertatzen da gaur telebistan?



ELUR-MELUR

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Zein hilabete da?

.....

2.- Non prestatzen ari dira teleberria?

.....

3.- Noren txanda da orain?

.....

4.- Nor ikusten ari da telebista?

.....

5.- Nola dago aita?

.....

6.- Noiz dugu eguraldi txarra?

.....

7.- Nola dago Gontzalen aita?

.....

8.- Zer du eguraldiaren gizonak?

.....

9.-Nork esanten du "Eguraldia... Bai aspergarria!

.....

10.- Zein egun da gaur? (ipuean)

.....

11.- Nola du izena eguraldiaren gizonak?

.....

Zenbakiak (0tik 100era)

1	Bat	30	Hogeita hamar	64	Hirurogeita lau
2	Bi	31	Hogeita hamaika	...	
3	Hiru	32	Hogeita hamabi	68	Hirurogeita zortzi
4	Lau	33	Hogeita hamahiru	69	Hirurogeita bederatzi
5	Bost	34	Hogeita hamalau	70	Hirurogeita hamar
6	Sei	35	Hogeita hamabost	71	Hirurogeita hamaika
7	Zazpi	36	Hogeita hamasei	72	Hirurogeita hamabi
8	Zortzi	37	Hogeita hamazazpi	73	Hirurogeita hamahiru
9	Bederatzi	38	Hogeita hamazortzi	...	
10	Hamar	39	Hogeita hemeretzi	77	Hirurogeita hamazazpi
11	Hamaika	40	Berrogei	78	Hirurogeita hamazortzi
12	Hamabi	41	Berrogeita bat	79	Hirurogeita hemeretzi
13	Hamahiru	42	Berrogeita bi	80	Laurogei
14	Hamalau	43	Berrogeita hiru	81	Laurogeita bat
15	Hamabost		82	Laurogeita bi
16	Hamasei	48	Berrogeita zortzi	83	Laurogeita hiru
17	Hamazazpi	49	Berrogeita bederatzi	...	
18	Hamazortzi	50	Berrogeita hamar	87	Laurogeita zazpi
19	Hemeretzi	51	Berrogeita hamaika	88	Laurogeita zortzi
20	Hogei	52	Berrogeita hamabi	89	Laurogeita bederatzi
21	Hogeita bat	53	Berrogeita hamahiru	90	Laurogeita hamar
22	Hogeita bi	...		91	Laurogeita hamaika
23	Hogeita hiru	57	Berrogeita hamazazpi	92	Laurogeita hamabi
24	Hogeita lau	58	Berrogeita hamazortzi	93	Laurogeita hamahiru
25	Hogeita bost	59	Berrogeita hemeretzi	...	
26	Hogeita sei	60	Hirurogei	97	Laurogeita hamazazpi
27	Hogeita zazpi	61	Hirurogeita bat	98	Laurogeita hamazortzi
28	Hogeita zortzi	62	Hirurogeita bi	99	Laurogeita hemeretzi
29	Hogeita bederatzi	63	Hirurogeita hiru	100	Ehun